

B Benjaminak
A Alebinak
I Infantilak

M Mutilak
N Neskak

Herri Kirolak

ARAUDIAREN EGOKITZAPENAK



Herri kirolak

Bost jokoz osatutako multzo bat egin dugu:

- "Sokatira".
- "Lokotx bilketa".
- "Zaku eramatea".
- "Jende proba".
- "Txinga eramatea"

1. TALDEEN OSAERA. JOKALARIAK TXANDATZEA ETA ALDATZEA.

Taldeek 10 eta 15 lagun bitartekoak izan beharko dute. Taldeak neska eta mutilez osatutakoak izango dira kategoria guztietan. Talde bakoitzean sexu bereko 5 lagun egon beharko dira, gutxienez.

Lehiaketa hasi aurretik taldekide kopurua hartuko da kontuan. Horrela, talde batek 10 ikasle baditu eta besteak 15, batzuek bi errelebo egingo dituzte eta besteek bakarra.

Taldekide guztiak parte hartuko dute joko guztietan.

2. PARTIDEN IRAUPENA ETA MARKAGAILUA.

Sailkapen sistema puntuka egingo da, joko bakoitzari puntuazio jakin bat emango zaio eta gero joko bakoitzean lortutako puntuak batu egingo dira, jardunaldiko azken sailkapena ateratzeko.

3. ARAU TEKNIKOAK.

SOKATIRA

Arauk

- Tiraldi bakoitzean talde bakoitzeko 8 neska-mutilek hartuko dute parte. Talde bakoitzean sexu bereko 3 lagunek egon beharko dute gutxienez.
- Aldaketak onartuko dira tiraldi batetik bestera.
- 2 tiraldi egingo dira talde bakoitzaren aurka.
- Berdinketarik gertatuz gero, denbora laburrenean irabazi duen taldea hartuko da irabazletzat.

LOKOTX BILKETA

Arauk

- Talde bakoitzak bere abiapuntua eta helmuga izango du .
- Talde bakoitzak bere saskian dauden 30 lokotxak lurrean markatutako tokian ipini beharko ditu, gero berriz lurretik hartu eta saskian uzteko. Ikasleek erreleboka parte hartuko dute. Errelebo bakoitzean ikasle bakoitzak 2 lokotx hartuko ditu. Aurrena bat hartu beharko du, dagokion lekuan utzi eta gero bestea hartu eta gauza bera egin beharko du. Ondoren, beste taldekidea aterako da gauza bera egitera. Hurrengo taldekideari txanda emateko, saskitik lokotxa hartu eta hurrengoari eskura emango dio. Lokotx guztiak ipinita dituztenean berriz irten beharko dute parte hartzaileek lokotxak saskian sartzera. Lokotxak jasotzean erreleboa emateko, irteera marraren atzean eskuak ukitu beharko dute taldekideek.
- Lokotxen arteko distantzia metro bateko izango da.

ZAKU ERAMATEA

Arauk

- Talde bakoitzak bere abiapuntua eta helmuga izango du.
- Ikasle bakoitzak zirkuituari itzuli bat eman beharko dio zakua bizkarrean duela. Lehenengo

B Benjaminak
A Alebinak
I Infantilak

M Mutilak
N Neskak

Herri Kirolak



ARAUDIAREN EGOKITZAPENAK

itzulia amaitzen duenak hurrengo taldekideari eman beharko dio zakua eta horrek amaitzen duenean besteari emango dio, taldekide guztiek lana amaitu arte.

- Ibilbidea: 15 metroko luzera (joan eta etorri: 30 metro guztira).
- Guztira 15 itzuli egin beharko dituzte.
- Norbaiti zakua eroriz gero, bere 2 taldekideek bakarrik jarri ahal izango diote berriz bizkarrean.
- Zakuak honako pisu hau izango du:
 - Benjaminen kategorian: 3 kilo
 - Alebinen kategorian: 6 kilo
 - Infantilen kategorian: 8 kilo

JENDE PROBA

Arauk

- Talde bakoitzak laukotekako antolaketa izango du.
- Talde bakoitzak bere abiapuntua eta helmuga izango du.
- Ibilbidea: 10 metroko luzera (joan eta etorri: 20 metro guztira)
- Laukote bakoitzak 2 itzuli eman beharko dizkio zirkuituari.
- Proba hasteko, ikasle bat jarriko da gurpilaren gainean eta beste hiru taldekideek gurpilari tira egin beharko diote.
- Aurreneko luzea amaitzean, gurpilaren gainean doan ikaslea gurpiletik jaitsi eta tiraka doan bat igo beharko da, lehenengo itzulia amaitzeko.
- Hirugarren itzulia egiteko beste laukote bat irtengo da, lehenago parte hartu ez duten 4 ikaslez osatua, eta prozesu bera errepikatuko dute.
- Denera 8 itzuli emango zaizkio zirkuituari.

TXINGA ERAMATEA

Arauk

- Talde bakoitzak bere abiapuntua eta helmuga izango du.
- Ikasle bakoitzak itzuli bat emango dio zirkuituari.
- Ibilbidea: 15 metroko luzera (joan eta etorri: 30 metro guztira)
- Talde bakoitzak 15 itzuli egin beharko ditu.
- Joko hau alebin eta infantil kategorietako ikasleentzat da, batez ere.
- Txinga bakoitzak honako pisu hau izango du:
 - Benjaminen kategorian: 2 kg
 - Alebinen kategorian: 4 kg
 - Infantilen kategorian: 6 kg